



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

## **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK OKUPAUTAKO ETXEBIZITZEN HUTSITZEA ARINTZEKO ETA ZIGORRAK HANDITZEKO ESKATU DEUTSIE ESTADUARI**

- **Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordean, Aldundiak Enkarterriko suhiltzaileen parkearen obren nondik norakoaren barri emon dau.**

*(Bilbon, 2020ko garagarrilaren 20an).* Bizkaiko Batzar Nagusiek, Talde Bereziak (PP) aurkeztu dauen eta EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen aldeko botoak jaso dituan arauz besteko proposamen baten bitartez, “beharrezko lege-aldaketak egiteko” eskatu deutsie gobernu zentralari, “batetik, etxebizitzaren ganeko eskubideen titular legitimoen babes osoa eta eraginkorra emoteko, legez kanpoko okupazioen aurrean, eta, bestetik, herritarren arteko elkarbizitza baketsua eta errespetuzkoa bermatzeko, etxebizitzaren legez kanpoko okupazioen aurrean”.

Hiru taldeek bat egin dabe, Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordean gaur goizean eztabaidatu dan ekimenaren 5 puntuetatik 4 onartuta, “prozedura judizialak arintzeko eta legez kanpo okupatutako etxebizitzak hutsitzea errazteko beharrezkoak diran lege-aldaketak egiteko” eskatu deutsie Espainiako Gobernuari, “okupatutako” dagon “zigorgabetasun-sensazioa ezabatuz”; eta, beste alde batetik, “Zigor Kodea aldatu daiala, legez kanpoko eta bortxa bidezko etxebizitzaren okupazioetan zigorrak igoteko eta okupazioaren mafien aurka burrukatuz”.

Hiru taldeak bat etorri dira esatean Bizkaian “arazo” bat dagola legez kanpoko okupazioagaz, eta “egonezina, zalantzak eta haserrea” sortzen ari dala herritarren artean, eta beharrezkoa dala “horri aurre egitea”. PP taldeko bozeroaleak lurraldeko hainbat herritan, Portugaleten, Santurtzin, Barakaldon, Gueñesen edo Bilbon, besteak beste, emon diran “etenbako” okupazioak aitatu ditu. Herritarren presinoari esker, okupazio horreek bertan behera geratzea lortu da.

Halanda be, EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeak proposamenaren puntu bakar baten alde agertzearen kontra agertu dira, euren eretziz “totum revolutum” bat dalako, izan be, “okupa” mobimendua “kriminalizatu” gura da. Mobimendu horren helburua, hain zuzen be, etxebizitza gabezia eta herritarrek ondasun horretarako daukien eskubide subjektiboa salatzea da. Talde bien



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

eretziz, badagoz mafien kontra burrukatzeko legezko mekanismoak, zigorrak handitu behar barik. “Ez da gure estiloa”, adierazo dau Bea Ilardia EH Bilduko bozeroaleak. Bere eretziz, mobimendu sozial horrek “ez dauka ezelango zerikusirik mafiakaz”.

Proposameneak beste puntu bat be euki dau (bosgarrena), eta puntu horrek PP taldearen aldeko botoa baino ez dau jaso. Bertan, hau eskatzen zan, berbaz berba: “Bizkaiko Batzar Nagusiek euskal erakunde publikoei eskatzen deutsee etxebizitzan okupazinoan laguntzen daben erakunde, alkarte eta taldeei diru-laguntza publikorik ez emoteko”. Ganerako taldeak kontra agertu dira.

## ENKARTERRIKO SUHILTZAILEEN PARKEA

Elkarrekin Bizkaia taldeari erantzunez, Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Diputatuak, igazko azaroaren 5ean hasi ziran Enkarterriko Suhiltzaileen Parkeko obren ganeko informazioa emon dau Bizkaiko Batzar Nagusietan. Aldundiko arduradunak esan dauenez, hilebete honeetan sortu diran hainbat “ezuste” gorabehera, horreen artean koronabirusa dala eta lanak gelditu behar izana, foru azpiegitura barria aurreikusitako egunerako egon leiteke amaituta, hau da, 2021eko martiaren 5erako, 16 hilebeteko egikaritze epealdia bete eta gero. Une honetan, kontratistak eraikinaren estrukturan ari dira beharrean.

Bengoetxeak iragarri dauenez, dana dala, badagoz parkea funtzionetan hasteko orduan “atzerapen” posiblea justifikauko leukien beste arrazoi batzuk, “aurreikusteko gaitzak diran zergaitiak dirala eta”. Kontratua aldi baterako etetera behartu eban Covid-agaz gain, Bengoetxeak “hondakin inerteen kudeaketea, telefonia kanalizazioaren desbideraketea, euri-uren saneamendu sarearen trazadu barria, obra hasi ostean lur-zatian aurkitu diran ezaugarrietan oinarrituta estruktura barrero azertu behar izana, aurreikusi bako soto bat egitea beharginentzat, eta bide perimetralen ondoan ezpondak egonkortu behar izatea” aitatu ditu.

## ERREGEAREN FIGUREA

Beste alde batetik, Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordeak ez dau onartu Elkarrekin Bizkaia taldearen arauz besteko proposamen bat. Proposamen horretan, talde horrek Bizkaiko Batzar Nagusiek Felipe VI Erregea Bizkaian persona “non grata” izendatzea eskatzen eban, eta baita Juan Carlos I “errege emeritua” be, eta “Bizkaiko Jauna” titulua erabilteari iztea, beste eskari batzuen artean. Ekimena ez da onartu, aldeko 5 boto



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

(Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu) eta kontrako 10 (EAJ-PNV, PSE-EE eta PP) izan ditualako.

Foru Gobernua eusten daben taldeek ekimena puntuz puntu bozkatzeko eskatu deutesie proposamena aurkeztu dauen taldeari, ekimenaren puntu biren alde agertzeko prest egozalako, “Estaduko Aginteei” Juan Carlos I erregeak Saudi Arabiaren eskutik jasotako 100 milioi euroko ekarpen posiblea eta Corinna Larseni egindako 65 milioiko ekarpena, eta baita ustez legez kanpokoia izan daiteken Juan Carlos I erregearen beste edozein jarduera ikertzeko eskatzea, hain zuzen be. EAJ-PNV eta PSE-EE “Koroaren jardueren erabateko gardentasuna bermatzeko egin beharreko aldaketa guztiak” egitearen alde be egon dira.

PP taldeak, bere aldetik, gai horrek ez dituala herritarrak arduratzen adierazo dau, herritarren lehentasunen artean “31. postuan” dagolako. Amaya Fernández talde horretako bozeroaleak esan dauenez, Elkarrekin Bizkaia, “hauteskundeetan errentagarritasuna lortzeko hilebeteetan bultzatzen aritu izan dan” ekimen hori, “arreteak desbideratzeko eta ez dagon lekuan arazoa sortzeko” modua baino ez da.

Bukatzeko, ekimena osorik bozkatu da, eta ez da onartu. Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu euren botoak batu ditue, Espainiako Koroaren “ustelkeriak” salatzen eta erregeari “Bizkaiko Jaun” titulua kentzeko. “Gura diran titulu guztiak jarri leitez, baina tituluaren balioa besteok emoten deutesaguna da. Erakunde honek, bere historia osoan, ez dau inor aintzatetsi”, erantzun dau Jon Andoni Atutxa jeltzaleak.

## BIZKAIKO JAI EGUNAK

Batzordeak ez dau onetsi Loiolako San Inazioaren jaieguna kentzeko eta bere ordean “Gatzaren Altxamenduaren” omenezko maiatzaren 24a jarteko Elkarrekin Bizkaia taldeak aurkeztu dauen ekimena. Foralidatea kentzearen eta zergak igotearen kontrako altxamendu horrek errepresino gogorra jasan eban 1634an. EAJ-PNV, PSE-EE eta PP ekimenaren kontra agertu dira, eta EH Bildu erdizka agertu da proposamenaren alde. Ekain Rico sozialistak, jai egunen egutegia “desakralizatu” behar dala uste dauen arren, esan dau “herritarrentzat nahiko nahasgarria izango litzatekela” aldaketea, izan be, “gehienek badakie garagarriaren 31 jaieguna dala, zergaitik dan jaieguna ez badakie be”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA PIDEN AL ESTADO QUE AGILICE EL DESALOJO DE VIVIENDAS OCUPADAS Y AUMENTE LAS PENAS**

- **En la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, la Diputación ha informado del desarrollo de las obras del parque de bomberos de Enkarterri.**

*(Bilbao, a 20 de julio de 2020).* Las Juntas Generales de Bizkaia han pedido hoy al Gobierno central, a través de una proposición no de norma del grupo Mixto (PP) aprobada parcialmente por la Cámara vizcaína con el apoyo de PNV y PSE-EE, que realice “las modificaciones legales necesarias para ofrecer una protección integral y efectiva a los legítimos titulares de derechos sobre las viviendas frente a la ocupación ilegal de las mismas, así como para garantizar la seguridad y convivencia vecinal pacífica y respetuosa frente a la ocupación ilegal de viviendas”.

Los tres grupos se ha unido para instar al Gobierno de España, a través de la aprobación de 4 de los 5 puntos de una iniciativa debatida esta mañana en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, a que realice “las modificaciones legales necesarias para agilizar los procedimientos judiciales y facilitar el desalojo de las viviendas ilegalmente ocupadas” y para “terminar con la sensación de impunidad” que acompaña a los “Okupas”; y, por otro lado, “a modificar el Código penal para elevar las penas en casos de ocupaciones ilegales y violentas de viviendas, y para la lucha contra las mafias de la ocupación”.

Las tres formaciones han coincidido en señalar que en Bizkaia existe un “problema” con la ocupación ilegal que está provocando “desasosiego, incertidumbre y malestar” entre la ciudadanía, al que “hay que hacer frente”. La portavoz del PP ha relatado el “goteo” de ocupaciones que se han dado en distintas localidades del territorio como Portugalete, Santurtzi, Barakaldo, Gueñes o Bilbao, que gracias a la presión de vecinos y vecinas se han logrado desocupar.

Sin embargo, EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia se han negado a apoyar ninguno de los puntos de la propuesta definida como un “totum revolutum”, ya que para ellos el texto supone “criminalizar” el movimiento “okupa” que pretende denunciar precisamente la escasez de vivienda y el derecho subjetivo de la ciudadanía a este bien. Para ambas formaciones existen mecanismos legales para luchar contra las mafias sin que se tengan que incrementar las penas. “No



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

es nuestro estilo” ha afirmado la portavoz de EH Bildu Bea Ilardia, que cree que este movimiento social “no tiene nada que ver con las mafias”.

En la proposición se incluía otro punto (el quinto) que solo ha sido apoyado por el PP con el que se pretendía que las Juntas Generales de Bizkaia instasen a las Instituciones Públicas Vascas “a no conceder subvenciones públicas a las entidades, asociaciones y grupos que apoyen la ocupación de viviendas.” El resto de grupos lo ha desestimado.

## PARQUE DE BOMBEROS DE ENKARTERRI

A preguntas de Elkarrekin Bizkaia, la diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha informado a las Juntas Generales de Bizkaia sobre las obras del Parque de Bomberos de Enkarterri que comenzaron el 5 de noviembre del año pasado. La responsable foral ha asegurado que pese a diversos “imponderables” surgidos en estos meses, entre ellos, la paralización de los trabajos como consecuencia del coronavirus, la nueva infraestructura foral podría estar lista en su fecha prevista, o sea el 5 de marzo de 2021, tras cumplirse el plazo de ejecución de 16 meses. En estos momentos, los contratistas trabajan en la estructura del edificio.

Bengoetxea ha advertido, en cualquier caso, que existen otras razones que justificarían un supuesto “retraso” en la entrada en funcionamiento del parque “por cuestiones difíciles de prever”. Además del Covid, que obligó a suspender temporalmente el contrato, Bengoetxea se ha referido a “la gestión de residuos inertes, el desvío de canalización de telefonía, un nuevo trazado de la red de saneamiento de pluviales, un reestudio de la estructura en base a las características encontradas en la parcela una vez iniciada la obra, la ejecución de un sótano no previsto para el personal y una estabilización de taludes junto a los viales perimetrales”.

## FIGURA DEL REY

Por otra parte, la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia ha rechazado una proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia en la que este grupo solicitaba que las Juntas Generales de Bizkaia declarasen persona “non grata” al Rey Felipe VI en Bizkaia, así como al “rey emérito” Juan Carlos I, y que dejaran de emplear el título de “Señor de Vizcaya”, entre otras peticiones. La iniciativa ha sido rechazada por 5 votos a favor (Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu) y 10 en contra (PNV, PSE-EE y PP).



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Los grupos que sustentan al Gobierno foral le han pedido al grupo proponente que se votara la iniciativa punto por punto, ya que estaban de acuerdo con apoyar dos de los puntos de la iniciativa, concretamente en los que se instaba a los “Poderes del Estado” a que investigasen la supuesta donación a Juan Carlos I por parte de Arabia Saudí de 100 millones de euros, y la donación de 65 millones a Corinna Larsen, así como cualquier otra actividad de Juan Carlos I que pueda considerarse presuntamente ilícita. PNV y PSE-EE estaban a favor también de que se llevaran a cabo “las modificaciones necesarias para garantizar la transparencia total de las actividades de la Corona”.

Por su parte, el PP ha señalado que este asunto no representa un asunto que preocupe a la ciudadanía ya que ocupa el puesto “31” dentro de estas prioridades. La portavoz de esta formación Amaya Fernández ha sostenido que esta iniciativa, que Elkarrekin Bizkaia “lleva persiguiendo durante meses” como forma de “rentabilizarlo electoralmente”, es una forma de “desviar la atención y crear un problema donde no lo hay”.

Finalmente la iniciativa se ha votado en bloque y ha sido rechazada. Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu han unido sus votos para denunciar las “corruptelas” de la Corona española y para que se le retire al monarca la distinción de “Señor de Vizcaya”. “Se pueden poner los títulos que quieran, pero el valor del mismo es el que le concedemos los demás. Esta institución no ha reconocido a nadie en toda su historia”, ha respondido el jeltzale Jon Andoni Atutxa.

## FESTIVIDADES DE BIZKAIA

La comisión ha rechazado una iniciativa de Elkarrekin Bizkaia destinada a eliminar la festividad de San Ignacio de Loyola para cambiarla por el 24 de mayo, en conmemoración de la “Rebelión de la Sal”, una revuelta por la conculcación de la foralidad y la subida de impuestos que fue duramente reprimida en 1634. La iniciativa ha sido rechazada por PNV, PSE-EE y PP, mientras que EH Bildu la ha apoyado a medias. Coincidiendo en que hay que “desacralizar” el calendario festivo, el socialista Ekain Rico ha señalado que “a la ciudadanía le molestaría bastante” el cambio, ya que “la gran mayoría sabe que el 31 de julio es festivo, aunque no sepan por qué”.